

bidegileak



Inazio Barriola (1906-1998)

Egilea:

OLATZ OTAÑO BARRIOLA

A

Sarrera

skotan aitatzat eta miretsia nuen Inazio Barriola Irigoien nire aitonari buruz idaztea ez zait erraza gertatzen. Idazle eta kazetari ez izateak ere zaildu egiten dit, jakina. Hala ere, ezin nion lan hau idazteari ukorik egin.

Pertsona serioa, neurritsua, gehiegikeriak (erretzea, alkohola eta abar) neurritz gozatu behar direla defendatzen zituen horietakoa zen. Askotan entzuten genizkion horrelakoak eta baita ikusi ere, 92 urterekin hil baitzen zentzumen guztien jabe zelarik. Azken egunera arte jardun zuen bere despatxoan irakurtzen eta idazten, musika laguna zuelarik.



Inazio Barriola, donostiar sendagile ospetsua (1906-1998)

Euskaltzale, abertzale eta fededun amorratua. Bere lanak euskaraz argitaratzeko beldur zen, berak zioenez, ez baitzen «alfabetatua». Hala ere, beti aritzen zen euskararen gorabeherak aztertzen eta hausnartzen. Euskaraz idatzitakoa beretzat sortzen eta gordetzen zuen. Hala ere, hiztegia eta Euskaltzaindiko azken arauak tajuz betetzen zituen. Mezetara ere egunero joan ohi zen; Arantzazuko Ama Birjinaren

miresle, bertako frantziskotarrekin lotura handia zuen. Aste Santua ere hantxe pasa ohi zuen hainbat urtetan bere familiarekin.

Aitonarengandik ikasi nituen, besteak beste, arduratsua izaten, gauzak ahalik eta hobekien egiten, bizitzaren aurrean gorrotoz ez jokatzeko, eta abar.

Azpimarragarria da Inazioren apaltasuna, familiarekiko eta adiskideekiko harro izan arren, ez zituen inoiz ere bere probetxurako erabili.

Azken egunotan, berriz, nire harenganako mirespena hazi egin da. Zergatik ote? galdetuko duzue. Txikitatik aitonak Napoleonganako jakin-mina bazuela ikusi dut. Sendagileaz gainera sasidazle izan zen. Eta bi ezaugarri horiek aztertzen ari naizela, 1950. urtean Napoleonen heriotzari buruzko liburua idatzi zuela jakin ere jakin ahal izan dut. Ez zela pozoiturik hil, esaten du liburu horretan, baizik eta urdailako minbiziaz edota beste gaixotasunen batez. 52 urte geroago berri garrantzitsu gisa agertzen zaigu. Harridura sortu dit «albiste berri» horrek.



Bere jatorria

Donostia festetan zegoen egun batean, 1906ko abuztuaren 15ean, jaio zen donostiar familia batean Inazio Maria Barriola Irigoien, bai gurasoak bai aiton-amonak ere donostiarrak zituenez. Bere ama Mercedes Irigoien zen eta aita Avelino Barriola.

Jaio zenean esneak kalte egiten ziola eta, *Ama Angela* izenez ezagutzen zuen inudeak hazi zuen. Zazpi anai-arrebetatik zaharrena izanik, amonarekin egin zituen bere lehen urteak. Pakita Etxeberriarekin ezkondu eta hamar seme-alaba izan zituzten. 1998. urtean hil zen Iñaki Barriola Irigoien.

Bere familian kulturaren munduarekin zerikusia izan duten kide gehiago izan dira. Adibide gisa, amaren aldetik bere herenaitona izandako Araetako On Juan Fermin Irigoien, 1813ko irailaren 8 eta 9an Zubietako *Aizpurua* etxean ospatu ziren bileretako partaide izan zena.

Anglo-Portugesen indarrez sartzearen ondorioz gertatu zen suteak Donostia suntsitu zuen eta Zubietako bilera horietan erabaki zen Donostia berreraikitzea. Domina jaso zuten ondorengoek, erabaki horren esker onez eta ezaugarritzat eta oroigarritzat.

Bere etxeko despatxoan, azken urtetan ordu gehien sartzen zuen txokoa



Ama Angelaren besoetan, bera hazi zuen iñudea

Abelino Barriola

Bestalde, Inazioren aita Abelino Barriola zen, antzerkilari eta politikoa ospetsua. XX. mendaren hastapenetan Gipuzkoa osoan, bereziki Donostian, bi gertakari berri hasi ziren ernatzen. Alde batetik, Bizkaitik poliki-poliki Arana Goiri anaien inguruan sortutako mugimendu abertzalearen lehen oihartzunak iristen hasi ziren, batez ere Engrazio Arantzadi *Kizkitza* donostiarraren lanari esker.



1942. urtean Abelino Barriola, Inazioren aita zena



Donostiako berreraikitzean parte hartu zutenen ondorengoei oparitutako domina

Bestetik, Lore Jokoen eta Euskal Jaiei itzalean, euskal literatura, bereziki euskal antzerkia, berpizkunde garaian murgildu zen.

Bi alor horiek uztartuz, Abelino Barriolak izugarrizko protagonismoa izan zuen garai haietan. Zenbaitentzat garrantzitsuena idazle eta antzerkigile alderdia izan zen; beste batzuentzat, politikoa. Gauza garbia da banaezinak direla euskaltzale eta abertzale honen bi esparruak eta garbi uzten dute, bestalde, semea, Iñaki, gizon handi-handia izan bazen, ahaztuxeago dugun aita ez zela txikiagoa izan.

Abelino Donostian jaio zen 1885eko azaroaren 10ean, eta atzerrian, Biarnoko Pauen hil 1944ko apirilaren 19an. Lanbidez merkataria, zapata denda izan zuen Donostiako Garibai kalean.

Katoliko amorratua ere izan zen. Horregatik, 1913an eskoletako laizismoaren kontrako guraso elkarteko kide izan zen.

Donostiako Orfeoiaren sortzaileetako bat ere izan zen Abelino Barriola.

Idazle eta antzerkigile

Abelino Barriola XX. mende hasierako antzerki mugimenduaren sustatzaile nagusienetakoa izan zen. Neurri batean, Marzelino Soroa eta Pepe Artola bezalako antzerkigileen zuzia jaso zuen. Toribio Alzagak ere eragin handia izan zuen berarengan.

Meza Berriya bere antzezlanak jaso zuen saria, 1908an, Eibarko Euskal Jailetan. Lan hau hurrengo urtean antzeztu zen lehen aldiz Donostian eta gerora bizkaierara ere itzuli zuen Bilboko *Euskaltzale Bazkuna* elkarteak, ziur asko Ebaristo Bustintzak itzulita. 1910ean beste sari bat jaso zuen Azkoitiko Lore Jokoetan, oraingo honetan *Aldiz-Aldiz* lanarekin. Urte bete geroago Bilboko *Euzko Gazteriak* antolatutako lehiaketan ere lehenengo saria jaso zuen *Zulo Madarikatuak* antzezlanarekin. 1912an ekitaldi bakarreko zarzuela bat idatzi eta estreinatu zuen Donostian, *Zorigaiztoko Eguna* izenekoa, Jose Olaizolaren musikarekin. Urte berean sari berri bat jaso zuen hiru ekitaldiko antzerki-lan berri batekin: *Lagun Txar bat*. Hala ere, lan hau ez zen antzeztu 1916. urtera arte. Gainera, lan honekin bide berritzaile bati ekin zion Barriolak eta horregatik zenbait kritika jaso zituen.

Komedia berri bat antzeztu zuen, 1923an, Donostian, *Maitasunak* izenekoa.

Beste zenbait bakarriketa ere idatzi zuen: *Brokoliyo*, *Goi Argi* eta *Zozoarro*.

Bere lanek arrakasta handia izan zuten. Adibidez 1905 eta 1923 bitartean, *Meza Berriya* 29 aldiz antzeztu zen Gipuzkoako batzokietan eta *Aldiz-Aldiz*, 58 bider.

Donostiako zinegotzi zela, Lukas Zulaika zinegotziarekin batera, Donostiako Udalak *Euskal Iztundea* sortzea lortu zuen 1915ean. Erakunde honetako lehen zuzendari Toribio Alzaga izendatu zuten eta berebiziko garrantzia izan zuen bai antzerki eskola gisa eta bai euskarazko ikastetxe gisa ere. Adibidez, bere lehen hamar urteetan 44 antzerki lan eskaini zituen.

Hainbat eta hainbat komunikabidetako kolaboratzaile ere izan zen: *Gipuzkoarra*, *Argia*. Hainbat talde euskaltzaletako kide ere izan zen: *Euskal Eснаlea* eta abarretan.



Eusko Jaurilaritzak sortutako Avelino Barriola deklamazio sariaren sari banaketan

Politikari abertzalea

Euzko Alderdi Jeltzalea Bilbon sortu eta Gipuzkoan sendotu zen arte, urte luze eta gogorrek pasa behar izan zituzten herrialde honetako lehen abertzaleek. Bilbon ikasten edo lanean zeudelako hango berri zuzena zutenak ziren batzuk. Beste batzuk, integristen zatiketa batetik iritsi ziren. Beste batzuk beste bideren batetik iritsi ziren jeltzaleen zateira. Dena den, oso gutxi ziren, horietako bat Abelino Barriola.

Lehen ahalegin garrantzitsuenetakoa 1897. urtean eman zuten, *El Fuerista* egunkari integrista abertzale bihurtu zenean. Ahaleginak ez zuen gehiegi iraun, hainbeste eragozpenen artean. Horregatik, Gipuzkoan eman zuten lehen urrats sendoa ezagutzeko 1904. urteko apirilaren 3ra arte itxoin behar da, orduan sortu baitzen, Alamedan zehazki, Gipuzkoako lehen Batzokia.

Egiaren izenean, aitortu behar da ez ziotela Batzoki izena jarri, *Centro Vasco* baizik. Gainera, zenbait kasutan alderdi politiko baten egoitza zela ere batzutan ukatu behar izaten zuten, ez zelako erraza orduko Donostian jendeak bere burua abertzaletzat hartzea. Dena den, garbi dago Gipuzkoako lehen Batzokia zela. Adibidez, inaugurazio ekitaldian Sabino Aranaren ordezkari zen Angel Zabala buruzagiaren gutun bat irakurri zuen Engrazio Aranzadik.

Lehen Batzoki horretako Batzordeko kide dugu, dagoeneko bada, Abelino Barriola, Engrazio Aranzadi, Miguel Muñoa, Camilo Otxoa edota Diego Zabalo bezalako abertzaleekin. Ez dakigu nola iritsi zen Barriola abertzale izatera, baina agian adierazgarria da orain ezagutzen dugun datu bat: urte batzuk lehenago sortu zen Donostiako Orfeoiko 50 bat kide, Sekundino Esnaola zuzendaria tarteko, egin ziren Euskal Etxe horretako bazkide, eta hiru lehen batzordeko kide: Abelino Barriola, Silverio Zaldua eta Jose Iñiguez.

Ordutik aurrera, garrantzi handia izan zuen Abelino Barriolak Gipuzkoako abertzaleen artean, bai alderdiko buruzagi gisa, bai Donostiako zinegotzi gisa eta bai Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu gisa ere.

Alderdiko buruzagi gisa, esan behar da, Barriola ofizialki bi urtez bakarrik izan zela Gipuzku Buru Batzako kide, zehazki 1918 eta 1920 bitartean. Hala ere, gauza jakina da Barriolak ofizialki buruzagi ziren gehienek baino itzal handiagoa zuela alderdian.

Adibidez, Catalunya Lligako Cambó Donostiara etorri zenean, 1917an, Abelino Barriola izan zen antolatzaile nagusienetakoa. Hauteskunde garaian ere, gainerako alderdiekin eta akordioak lortu behar zirenean, Barriola izaten zen jeltzaleen artean negoziatzaile nagusienetakoa, nahiz eta GBBkoa ez izan.

Donostiako zinegotzi gisa 1909. urtean saiatu zen lehen aldiz sartzen. Orduan jeltzaleek

eskubitarrekin egin zuten koalizioa. Barriola eta Silverio Zaldua ziren jeltkideen ordezkari. Baina ez zuten hauteskundeak irabazterik lortu. Beraz, lehen aldiz 1913ko azaroaren 13an eskuratu zuen Barriolak zinegotzi izatea, Jose Imazekin batera. Imaz, ordea, kargugabetu egin zuten, inpugnazio bat medio.

Bi urte lehenagotik ordurako bazeuden beste bi abertzale udalean, Migel Urreta eta Camilo Otxoa de Zabalegi. Hiru zinegotzi hauek Donostiako Udalean egin zuten lana batez ere euskararen eta euskal kulturaren aldekoa izan zen. Hala ere, beste hainbat gaietan ere berebiziko garrantzia izan zuen Abelino Barriolak. Adibidez, bera izan zen Artikutzako urtegitik Donostiara ura ekartzea lortu zuena.

Azkenik, esan behar da, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu ere izan zela Abelino Barriola.



Maritxu Barriola Inazioren arreba

Maritxu Barriola

Inaziorekin batera, Maritxu Barriola bere arreba ere, aipatu beharrekoa da. Gaztetan hasi zen *Poxpoliña* jaietan laguntzen. Guda hasi zenean familiakide batzuekin erbestera abiatu zen. 1944. urtean aita hil zenean, Donostiara itzuli eta familiarena zen zapata dendan lanean hasi zen; han egiten zituzten bilera klandestino guztiak.

Euskaltzale eta fededun handia, zenbait eliz liburu euskaratu eta argitaratzen lagundu zuen. Orixeri ere *Urte guziko meza bezperak* latinetik euskarara itzultzeko lanak ordaindu zizkion.

Euskarari dagokionez *Kili-kili* aldizkariak bulztatu zituen eta *Xabiertxo* liburua berrargitaratzea lortu zuen. Euskal udalekuen aitzindari izan zen, Barrian lehen urratsak emanez. Kristau mugimenduan ere oso sartua, katekesia eta lehen Jaunartzeak euskaraz ere egin zitezen ahalegindu zen. Preso sozialei laguntzeko ere prest izan zen azken egunera arte, Iñaki Azpiazu apaiza lagun zuela.

Ezin ahaztu, bestalde, bere aitonaren lehen-gusina izan zen Juana Zipitria Barriola anderea, *Ama Kandida*, santu izendatu berria, *Hijas de Jesús* kongregazioaren fundatzailea. Honen ahizpa ere lekaime izan zen eta hau gertuagotik tratatu zuten.

Inazioaren Ikasketak

ei urte bete zituenan Marianistetan hasi zituen ikasketak, 1912an. Argi zegoen han ikasi behar zuela, aitzak han ikasi baitzuen eta harremanak ere oso onak zituztenez. 1922ko ekainaren hiruan ikasketak, hau da batxilerra, bukatu zuen. Marianistek Zuzendaritza egiteko aholkua eman zioten. Baina berak ez zuen gustuko. Buelta asko eman ondoren, medikuntza egitea erabaki zuen. Inoiz ez zen erabaki horretaz damutu. Harentzat lanbide osoa zen, hau da, batetik zientzietakoa eta bestetik letretakoa ere bazenez, gizakiarekin harreman zuzena baitzuen; pixka bat psikologo, pixka bat filosofo, pixka bat apaiz. Hain gustukoak zituen beste

arteak lantzeko aukera ere ematen zion gainera: pintura, musika eta literatura.

Honela, hamasei urterekin Madrilen aurkitu zen, bakarrik, medikuntza ikasketei hasiera emateko. Hemen egin zituen bere lehenengo tertulia literarioak eta museotarako ikustaldiak eta kontzertu entzunaldiak. Hasieran ikasle-egoitza batean egon zen eta han egin zituen Madrileko bere lehenengo lagunak. Han ezagutu zuen Pedro Arrupe jauna, geroago *Prepósito de la Compañía de Jesús* edo lagundiaren buru egin zutena.

Madrilen egon zen bitartean Marianistekin harreman estua izan zuen. Igandetan hara joaten zen mezetara, gosalduta ondoren tertulia literarioak edukitzen zituzten beste ikasle ohi batzuekin, On Lorenzo Roca irakaslearen



Madrilera joan aurreko argazkia 1923an, bere lehenengo sendagile amantala

ardurapean. Ondoren futbol partidu bat jokatzeko zuten eta partidurik ez zenean kontzertu eta museoren batera joan ohi ziren. Talde hura osatzen zutenek harremanak galterakoan adiskidetasuna ere galdu zuten, mantendutako bakarra Luis Moya jaunarekin izan zen. Goi mailako ikasketen aldeko borrokan zebilenean asko lagundu eta animatu zuen gainera.

Juan Madinabeitia eta Urrutia doktoreari zor die bere espezializazioa, beraiekin ikasterakoan erabaki baitzuen zein bideri jarraitu behar zion.

Ikasketak bukatuta, Donostiara itzuli eta ospitalean hasi zen lanean, oposaketa bitartez. Honez gain, Madrildik iritsi zenetik 1984.

urtera arte Garibai kalean eduki zuen bere kontsulta. Urte horretan bukatu zuen, kontsultaz gain, bere aktibitate profesionala. Ospitalean lanean zela, 1930. urtean, hiru hila-betetako baimena lortuta, Parisera joan zen bere ikasketak zabaltzera, batez ere kirurgia alderdia lantzera.

Honen atzetik beste bi bisita egin zituen Parisera azken aurrerakuntzen berri jasotzeko. Baina berak zioen bezala, benetako irakas-kuntza Vienan hasi zen urte batzuk geroago. Espezializazioaren alderdi kirurgikoenaren ikasketa sakonago baten beharra nabari zuen eta, beste lankide batzuek bultzatuta, Vienara abiatu ziren bera eta emaztea. Hango egonaldia oso gustukoa izan zen, ez lanerako baka-



Vienan 1935. urtean, bertan: Losada, Liesl, Arrazola, Sancho, emaztea eta Soriano jaun-andereak



Ikasketak bukatuta ospitalean lanean ari zenekoa



Inaziok aurrera ateratako klinika pribatua, hasieran liseriketa aparatuan espezializatua

rrik, baita bere zaletasunetarako ere, musikarako alegia, kontzertu, opera, opereta, zarzuela, eta abarretarako.

Herrialde honetan hainbeste miretsi zuen Finsterer zirujaua ezagutu eta irakasletzat eduki zuen. Han egindako ikasketen ondorioz, Donostiara itzulitakoan, doktoradutza egin zuen.

Handik etorri, lanera itzuli eta digestio espezializazioko klinika baten beharra sentitzen zuen. *Clinica de las Mercedes*-en hasi zen lanean, beraz, Valentin Fort Zarraga doktorearekin: lehenengo, alokairuan eta gero, jabegoa lortuz.

Lehenengo urte haiek oso gogorrak izan ziren. Gudaren ondorioak larriak izan ziren, bai klinikarentzat baita beretzat ere. Hainbat atxiloketa eta tresneria eta materialen inkautazioak jasan zituen. Halere, aurrera, kartzelatik irten zenean bertan jarraitu baitzuen 1982. urtera arte.

Klinikaren ixtea oso gogorra izan zen berarentzat. Honek bizitza osoaren amaiera suposatzen zuen, hainbeste lan eta zorion eman zizkion ilusio horren amaiera. Nahiz kontsultarekin jarraitu, ez zen berdina izan, ezin baitzuen bere gustuko azterketarik egin (X izpiak, analisi, e.a.). Klinika saldu eta eguneko zaharren egoitza izatera pasa da.

Kartzelaldiak

Guda bukatu eta urte erdira, 1941ean, garai-
leen sentimenduen aurrean galtzaileen senti-
menduak zeuden. Euskaldunak herrialde
askotan sakabanaturik aurkitzen ziren, Mun-
du Gerrak jo zituenean. Urtarrilaren hiruan
hasi ziren atxilotetak. Hitler-ek Paris hartu
zuenean, esku ezezagun batek espainiar poli-
ziari zenbait dokumentu eman eta honela
ekin zieten hasiera atxilotetei.

Inazio Barriolari, bere atxiloketa noiz gertatu-
ko beldurrez, erbestera ihes egitea, Ipar
Euskal Herrian familia baitzuen, edota etxean
geratzearen zalantzak sortu zitzaizkion.
Familiakoek bere ekintzen berri ez zutela eta,
urte gutxitako kartzela zigorra egokituko zi-
tzaiolakoan, etxean geratzea aukeratu zuen.
Arratsalde batez, kontsulta bukatutakoan,
poliziak, paper eta eskutitz bila zebilen aitzia-
kian, dena arakatu eta Gobernu Zibilera era-
man zuen.



«Euskal espioi talde bateko kide zirela zioten adiskide batzuek, bertan: Causo, Gonzalez Herrero, Ariztia, Echeverria, Gomez Jauregi, Olaizola, Canovas, Lasa, Urbiola, Alava, Tolare, Arregi, Ezkurdia»

Ondoren Ondarretara eraman zuten eta handik Madrilgo *Checa de Fomento*-ra. Tren geltokian emaztearekin topo, bere ezjakinean haserre jakina, hiru urte baitzeramatzan euskal presoek eta haien familiakideei laguntzen inork ezer jakin gabe. Hala ere, senarraren ondoan egon zen urte gogor haietan, beti esperantza eta animoak piztuz.

PNV/EAJ-k bultzatuta sortu zen beraien taldean Hego Euskal Herriko lau probintzietako ordezkariak zeuden: Nafarroan (Baztan eta Iruña ingurukoak), Ariztia anai-arrebak, Etxeberria anai-arrebak, Rafael Goñi apaiza, Modesto Urbiola, Felipe Oñatibia, Felix Ezkurdia eta Jose Agerre; Arabatik, Luis Alava, Victor Gonzalez de Herrero, Ceferino Polo eta beste zenbait lagun; Bizkaitik, Verdes anai-arrebak, Julian Arregi eta Antonio Causo; Gipuzkoatik, Itziar Mujika, Delia Lauroba, Jose Damián Etxeberria apaiza, Inozentzio Tolarratxipi, Patxi Lasa, Rafael Gomez Jauregi, Luis Canovas eta Inazio Barriola.

Presondegi honetan torturak jasan zituzten, batez ere lehenengo iritsi zirenek. Gero, kide batzuen askatasuna lortu zen. Hauek irten zirenean, berriz, besteen prozesamenduaren albistea jaso zuten. Jakin zutenez, beraien delitua honako hau zen: Antolaketa klandestinoa; presoekiko laguntza aitzaki jarritz, Espainia traizionatu eta *Glorioso Movimiento Nacional*-aren arrakasta zapuztea.

Maiatzaren 29an *Checa de Fomento*-n polizia desagertu eta soldaduak sartu ziren. Preso

guztiak kartzelaz aldatzen hasi ziren, baina euskaldunak bertan geratu ziren. Giroa guztiz aldatu zen polizia desagertzerakoan, torturak eta galdeketak ere desagertu ziren.

Beraien egoera ez zen txarra. Kartzelatik zenbait irteera egiteko aukera ere eduki zuten. Baina ez zuen askorik iraun. Ekainean beraien defentsaren, Ramon Revuelta, onarpena izenpetu zuten. Ekainaren 8an azken eguna *Fomento*-n.

Hurrengo egunean taldeko emakumeak Ventaseko emakumeen kartzelara zuzendu zituzten eta gizonezkoak Santa Engracia ize-nez ezagutzen zen presondegira. Uztailaren 3an epaiketa izango zela jakin zuten.

Epaietaren ondoren izugarritzko danbatekoa jaso zuten; kartzelan geratzen ziren 19 euskal presoek heriotza zigorra jasan behar zuten eta aske utzi zituzten batzuen berrepaiketa eskatu.

Uztailaren 21ean berriz ere kartzelaz aldatu zituzten: Polier-era. Kartzela gisa erabiltzen ziren komentuak ixten ari baitziren pixkanaka.

Bere ustetan, harritzekoa zen honelako tokietan sendagileek eduki zezaketen lehentasuna, eman zezaketen zerbitzuengatik noski. Inaziok bere larruan sufritu zuen, bere ziegak ere desberdinak baitziren. Han jaso zuten heriotza zigorraren deusezte, berrikuspena lortu ondoren.

Bere kristau fedea ez zuen galdu. Egoera txarretan eta onetan ere beti bizirik zuen. Bere



Torrijoseko kartzelan Inazioarekin egondako azken taldea, beraien artean zutik Gregorio Peces Barba jauna

otoitz eta meza ospakizunak ere ez zituen utzi. Jauna egunero hartzera ez zen ausartu.

Espioi talde baten partaide zirelako eta gainera presoan aldeko lana egiten zutelako, berriz ere heriotza zigorra jaso zuten hurrengo ekainean. Oraingoan, ordea, erabaki okerragoa hartu zuten. Sententziak irailean irakurri zituzten: Barriolak hamabi urte eta egun bateko zigorra jaso zuen; Luis Alava jaunak, berriz, heriotza zigorra, hauteskundeetako zerrendan agertu zelako edo.

Askatasuna 1942ko abenduaren 12an lortu bazuen ere, ez zen luzarorako izan. Artean Madrilén zegoela, beraien askatasunak haserrea sortarazi zuela eta, berriro atxilotua izateko arriskuaren berri jaso zuen. Halere Donostiara etortzea erabaki zuten: gurasoen etxera joan eta atxiloketaren zain geratu ziren. Kartzelarako itzulera zertifikatu medikuen bidez atzeratzea lortu arren, otsailaren 12an tren geltokian aurkeztu behar izan zuen berriz ere Madrilgo presondegira itzultzeko.

Unerik txarrena

Kartzelako bigarren aldi honetan tokatu zitzaion unerik txarrena pasatzea, martxoan Paul bere anaia hil baitzen Venezuelan, erbesteturik zegoela. Eusebio beste anaia batekin ihes egitea lortu zuen. Garai hartan familiaren beste zati bat ere ipar Euskal Herrian aurkitzen zen, atxiloteten beldur.

Beraien eskuetan zituzten ahalegin guztiak egin arren Luis Alava jaunaren heriotza zigorra aurrera zihoan, Francok ez baitzuen zigor horretatik aske utzi. Honela 1943an fusilatu zuten bere azken momentuak eta nahiak adierazi ondoren.

Uztailan berriz ere tratu txarrak itzuli ziren: kartzelaren egoera ere ez zen ona, erortzen hasia baitzen eta presoak bata bestearen gainean zeudenez. Zuzendariarekin bi topo egite edo talka txar eduki zituen. Abuztuaren 25ean egoera okerragoan aurkitzen zen Torrijoseko kartzelara eraman zuten, beraz. Argi zegoen zigorra zuzendariari eta bere salatariari aurre egiteagatik izan zela.

Abenduaren hasieran bere zigor bera zuten presoak kaleratu zituzten. Baina Inaziok ez zuen lortzen: paperak desagertu omen zirelako edo arrazoi berriak agertu omen zirelako. Nork daki zergatik.

Garai honetan leku aldaketa batzuk egin ziren. Torrijos-eko kartzelan gutxi batzuk geratu ziren egoera lasaigoan, preso, funtzionario, zuzendari eta askotan familiakoek ere

talde lotu bat osatzen baitzuten ospakizun, festa, eta abarretarako.

Garai honetan Gregorio Peces Barbas ezagutu zuen, PSOEko politikariaren aita. Oso harreman estua izan zuten bi senar-emazteek. Inazioaren egoera ikusita, baldintzapeko askatasuna lortzeko paperak egiten lagundu zion Gregoriok. Dena aurkeztuta zegoenean kartzela ixtea erabaki zuten, eta presoan leku aldatzea berriro.

Azkenean, abenduaren 17an iritsi zen askatasun eguna Inazio Barriolarentzat; besteena, berriz, hurrengo hilabeteetan. Azkenean denak libre geratu ziren. Fusilatu zuten Luis Alavak patu txarragoa izan zuen.

Urte hauetako gorabeherak, guk familiakook, gainerako guztiek bezala, bere liburuaren bitartez jakin ditugu. Ez zituen inoiz hango gorabeherak aipatzen, azken urteetan zerbait kontatu arren. Ikusi duguna da urte haietan bere fedea handitu egin zela eta bai San Inazio eta baita Arantzazuko Ama Birjina ere beti aurrean zituela. Politikari buruz zeritzona, berriz, ez zen hain ona, ez zen bere gustukoa.

Politika beharrezkoa izan arren eta berak abertzale bezala gauzak argi eduki arren, ez zitzaion mundu hori gustatzen, ez baita gardena, azpikeria askotakoa baizik. Bere gorabeherak izan zituen urte haietan baina bizitzan zehar argi utzi zigun: gorrotoa lagun txarra dela. Izandako arazoek ez zuten inoiz inorengatik gaizki hitz egitera bultzatu; ahaztu egiten zituen.



Pakita Etxeberria, bere emazte, lagun, konfidente

Kartzelan pasatako urte haietan puntua egi-
ten ez jakitea zuen damu. Jakin izan balu, ordu
asko pasa araziko baitzizkion eta gainera bere
burua ez baitzen pentsamendu berdinei buel-
taka ibiliko.

Urte haietan ere bere emaztearenganako
maitasuna handitu egin zen. Ulertezina zen
Inazio emazterik gabe. Berak ematen zion
indarra, hatsa, ordainezina zen, beti zegoen
bere ondoan nahiz denen kontra jardun
behar. Kartzelako urte haietan oso bakarrik



Isturín bere etxea

aurkitzen bazen ere, hantxe zegoen senarra-
ren ondoan. Emaztea hil zitzaionean Inazio
zeharo lur jota gelditu zen, beraz, eta inork
ez genuen hutsune hori betetzerik lortu.
Musikak, liburuek eta gurutzegramek bete-
tzen zuten bere eguna.

Azken urteotan, nahiz hasieran EAJ-PNVko
alderdikide izan eta gero EAKoa, inoiz ez zen
alderdikide eragilea izan; bere lana beti barru-
koa zen. Lehen esan bezala, ez zuen gustukoa
politika egiteko modu hau.

Mundu kulturala

Bere lanbidea eta zaletasun handiena medikuntza izanik, arlo askori loturik aritu da. Esan dugu musika eta pintura gustuko zituela, Madrilén pasa zituen lehen urteen ondorio bezala. Literatura ere gustukoa zuen. Eta hortik bere idazteko zaletasuna.

Elkarte askotan parte hartu zuen. Besteak beste, Eusko Ikaskuntzako eta Euskaltzaindiako kide izan zen. Bere lagun mina zen Koldo Mitxelenak sartu zuen Euskaltzaindian.

Guda ondoren hasi zen *Estudios Vascos* elkartearen parte hartzen, nahiz eta aurretik ezaguna izan beretzat. Bere aldizkarian (*RIEV*) ere behin baino



1991. urtean medikuntzaren historiari buruzko jardunaldietako hitzaldi batean

gehiagotan idatzi du. Mila bederatziehun eta laurogeita laugarren urtean elkarteko zuzendari izendatu zuten. Urte horretan bertan *Sociedad Vasca de Historia de la Medicina* sortu zuten eta hurrengo urtean bertako ohorezko lehendakari bihurtu zen. Kuranderiako gaiak ere asko ikertu zituen eta liburu eta idatzi askotako gaia aurkitu zuen. Bilbon elkarte honek gela bati *Inazio Barriola* izena jarri zion. Gela horretan haren lanak aurki daitezke: hainbat material, liburu, idatzi, eta abar.

Aipatu behar da, jakina, Euskal Unibertsitatearen alde egindako borroka ere. 1918-1920. urtean Abelino Barriolak, Donostiako zinegotzi zen garaian, beste zinegotzi abertzaleekin batera Euskal Herrian zegoen unibertsitate beharra agertu zuen. Gerora Inaziori, aitaren hastapenak jarraituz, ez zitzaion bidezko iruditzen bere ikasle garaian hainbeste gazte ikasi gabe geratzea, Donostiatik irteko zailtasunengatik eta emakumeek ikasteko zituzten eragozpenengatik, familiak ez baitzuen bere alabak etxetik urruntzerik nahi izaten.

Borroka honetan 1963an hasi ziren. Gipuzkoako kanpusa kostata lortu zuten. Bizkaiak lortu zuen lehenengo, politikoki laguntza gehiago izatearen arrazoia izan zitekeen. Gipuzkoarako Filosofia eta Letrak nahi zituzten baina Zuzenbide Fakultatea eman zien. Borroka oso gogorra izan zen. Jende askorekin hitz egin behar izan zen. Interes handiak zeudela sumatu zuten. Halere, beraien lanaren fruituak gaur egun ere ikus daitezke. Borroka hau guztia *Gestiones Guipuzcoanas para una Universidad oficial en el Pais Vasco* (1963-1979) liburuan agertu zuen. Gorabehera handiak izan ondoren, 1985. urtean, argitaratu bazen ere, ez zuen arrakasta handirik eduki. Antza denez, liburu horretan zenbait pertsona eta erakunde kaltetuak ziren, unibertsitatea lortzeko oztopo izan baitziren, hain zuzen ere.

Egindako lan guztiaren aitortpena 1993an egin zitzaion, bere lankide ziren Manuel Agud eta Francisco Yarza jaunekin batera; EHU-ko urrezko domina jaso zuten. Egun horretan bertan Arkitekturako Fakultatearen inaugurazioa izan zen. Ondoren Gipuzkoako Ibaetako kanpusean aulario bat eraiki zuten, *Ignacio Maria Barriola* izenez.



Ibaetako aularioa, esker ona adierazteko bere izena jarri zioten

Sendagileen elkarteari dagokionez, 1932. urtean izendatu zuten idazkari. Guda iritsi zenean kendu zioten kargu hori. 1963. urtean egin ziren hauteskundeetan lehendakaritza-rako aurkeztu zen, lagunek bultzatuta. Baina garai horretako politika zela medio, gobernadoreak bere izena debekatu zuen beste bi zerrendakideekin batera. Mehatxurik eta gezur beltzik ere jasan behar izan zuen. 1977. urtean Estatutua onartu zenean egoera aldatu zen eta 1978. urtean egin ziren hauteskundeetan aukeratu zuten lehendakari. 1993. urtera arte iraun zuen kargu horretan.



1993.urtean EHUK unibertsitatearen alde egindako lanarengatik emandako urrezko domina jasotzen, Inazioarekin batera Francisco Yarza eta Manuel Agud jaunak, beste omenduak



Gipuzkoako sendagileen elkarteko lehendakari bezala Espainiako Erregeak eskainitako harreretak batean (1986)

Bere liburuak

Lehen esan bezala, kultura munduari oso lotuta zegoen eta musika eta pintura oso gustukoak baldin bazituen ere, idaztea zen bere eguneroko lana.

Oso gaztetatik eguneroko bat idazten zuen eta beti gordeta eduki izan ditu. Bestetik *Eusko Ikaskuntza* eta RSVAP-eko aldizkarietan, bozeto eta artikulua bat baino gehiago argitaratzeaz gain, zenbait liburu idatzi zituen: *El enigma de la muerte de Napoleón*, *La medicina popular en el País Vasco*, *Los amigos del País Vasco y la medicina*, *19 condenados a muerte*, *El curandero Petriquillo*, *Gestiones Guipuzcoanas por una Universidad oficial en el País Vasco* eta *Crónica de mi vida y entorno*.

El enigma de la muerte de Napoleón 1950ean argitaratu zuen. Liburu honetan bere bi zaletasunak elkartu ziren: literatur zaletasuna eta urdaileko gaitzen ikerketa zaletasuna. Napoleonen heriotzak ingelesez eta frantses artean sortzen zituen gatazken azterketa liburu batean argitaratzera bultzatu zuen.

La medicina popular en el País Vasco liburua, 1952an. Liburu honetan herriak erabiltzen zituen zenbait sendabide praktika agertzen digu. Oinarri zientifikorik gabeko praktika desberdinen bitartez osasuna lortzea zuten helburu eta horri buruz idazten digu.

Los amigos del País Vasco y la medicina, 1963an. Liburu honetan XVIII eta XIX mende hasieran ematen zen medikuntzaren berri eman

nahi digu. Garai hartan zituzten arazoei aurre eginez garai hartako jauntxo eta pertsonek Europan ematen ziren aurrerakuntzekin bat egin nahi zuten.



Bozeto eta artikulua desberdinak

19 condenados a muerte 1978an argitaratu zuen. Kartzelan pairatutako urteetako gora-beherak agertzen dizkigu.

El curandero Petriquillo liburua 1983an. Petrikillo euskal kuranderoen artean ezagunenetakoa izanik, haren biografia moduko bat egin du.

Gestiones Guipuzcoanas por una Universidad oficial en el País Vasco, 1985ean. Liburu honetan garai gogor batean herritar talde bat elkartu eta Donostiarako edo Gipuzkoarako Euskal Unibertsitate bat lortzeko izan zituzten gora-behera eta harremanak azaltzen dizkigu.

Crónica de mi vida y entorno liburua 1994an idatzi zuen. Ez zuen bere biografia egin nahi izan, baizik eta bizitzan zehar bizitu zituen une konkretu batzuetan agertutako bere iritzi eta jarrerak.




Los amigos del País Vasco y la medicina,
1963an argitaratua



Crónica de mi vida y entorno 1994ean,
bere azken lana




La medicina popular en el País Vasco,
1952an argitaratua



Napoleonen heriotzari buruzko liburua,
1950ean argitaratua



19 condenados a muerte, politikari buruz
idatzitako liburu bakarra, 1978an
argitaratua



Gestiones guipuzcoanas por una
universidad oficial en el País Vasco
1985ean argitaratua



Nicanor Zabaleta (Paris, 1927) bere lagun mina, Parisen ikasketa garaian batera egondakoak



Etorkizunari beti itxaropenez so



Gipuzkoako sendagile elkarteak ere omendu zuen



Estatuko sendagileen elkarteak urrezko dominarekin omendu zuen urteetako lana



Inaziok jasotako urrezko dominetako bat

Dominak

Bere bizitzan zehar landutako alderdi bakoitzan ahalik eta hoberen egiten saiatu zen. Honela, urteen poderioz bere esker ona jasotzeko aukera izan zuen arlo guztietan.

Sari hauek ez ziren bere gustukoak, pertsona asko eta asko, baita merezimendu gehiagokoak ere, joan baitira saririk gabe. Bere ustetan, askotan sari edo domina hauen zergatietan norbanakoen arrazoiak dira garrantzizkoak, adibidez adiskidetasuna.

Halere, esan behar da dominak esker onez jasotzen zituela. Honela, Gipuzkoako sendagileen elkarteak 1994. urtean bere lana eskertzeko omenaldia egin zion. Gero, Estatuko Sendagileen elkarteak lanean aritu zen

55 urteengatik, *Colegiado de Honor Nacional con emblema de Oro* oparitu zion.

Donostiar bezala, *La medalla del mérito ciudadano* jaso zuen 1986. urtean, profesio liberalen ordezkari zenez. Domina honek ilusio handia egin zion donostiar izatea oso barruan zeramanez.

1988. urtean, *Premio de la Cruz Roja* jaso zuen.

Musikazale bezala aipamena egin behar, bereztat sari berezia, Tolosako *Certamen Internacional de Masas Corales*-eko pregoia egitea, 1985. urtean.

Eta bestetik, bere laguna izan zen Nicanor Zabaleta jauna hil zenean udalak eskainitako omenaldian hitzaldia egitea ere sari handitzat zuen.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Arantxa Barriola Etxeberria*

Egilearen oharra: Aipamen berezia egin nahi nioke Iñaki Galdos Irazabal jaunari Avelino Barriola zenari buruzko gorabeheretan eskainitako laguntzagatik.

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2003ko uztaila

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

Inprimaketa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

ISBN: 84-457-1987-4 (Lan osoarena)
84-457-1990-4

L.G.: S-